

EDITORIALA



Egilea ~ Itsaso Larramendi Elexgaray

2008an higiezin burbuilak eztanda egin zuenetik hamar urte bete berri diren honetan, gure hormak eraikitzen, mendiak zulatzen eta izenak zein izanak baldintzatzen dituen esku ikusezinari so egitera gatoz. Haren itzalari jarraituko diogu ebidentzia fisikoak ez direnak ere ikusgarri egiteko, ezartzen dizkigun baldintza hertsagarriak zein aukeraguneak ezagutzeko.

Eguno testuinguru ekonomikoak arkitekturaren prozesuetan duen eragina ulertzeko zenbait klabe eskainiko dizkigute zenbaki honetan jasotako testuek.

Medio digitalek sortutako ekonomia molde berriek arkitektoaren ofizio eta lan-prozesuetan izan dezaketen eraginaz mintzatuko gara adibidez, ezinbestekoa delako geure buruei galdetzea arkitekturaren iberizazioaren lekuko izateko prest gauden (burutik pasa bazaigu behintzat). Eta jardungo gara baita hirigileen erabakitze askatasunaren mugez, jabetzeko erabaki urbanistikoetan errentagarritasun ekonomikoak duen pisu isilaz. Ikusiko dugu nola eraikitze-prozesua bera izaten den sarri proiektu monumentalak

martxan jartzearen helburua, ekonomia-sektore estrategikoak aktibatze eta nazio-irudi konkretu bat sortzeko tresna eraginkorrak izan baitaitezke. Eta nola antzeko xedeaz antolatzen diren ere hain ugariak diren makroekitaldiak, aisialdiko eskaintzak sortu eta titularrak hitz anglosaxoiez betetzeaz gain hiri-marka konkretuak sortzearekin oso lotuta baitaude. Mintza gaitzke baita gentrifikazioaz edo errenta baxuko auzotarren nahitaezko lekualdatzeaz ere, eta fikzioen klabeai aditu errealitatean zer ari den gertatzen ulertzeko.

Baina ekonomia izate abstraktu eta ukiezina bainoago, eguneroko praktika konkretuen multzoa denez, aktibatuko ditugu gureak, osatuko ditugu lankidetzan, iraunkortasunean eta elkarren zaintzan oinarritutako komunitateak, eta martxan jarriko ditugu eskualde-proposamenak, etekin ekonomikoaz haratago doazen helburuak osatzeko.

Izan ere, hainbat dira kapitalak gure inguruan eragin eta eraikitze dituen moduak. Hiriaren eta lurraldearen gorpuztea nahitaez zeharkatzen duen faktorea baita ekonomia.